



Ikastorratza, e-Revista de Didáctica, es una revista en formato digital que publica artículos relacionados con los procesos de enseñanza y aprendizaje, a través de Internet y bajo la licencia Creative Commons.

Ikastorratza, e-Revista de Didáctica, es una publicación seriada, gratuita y libre de ser impresa que cada seis meses divulga artículos científicos, propuestas didácticas y artículos de opinión sobre cuestiones relativas al mundo de la didáctica.

Ikastorratza, e-Revista de Didáctica, asume como objetivo principal la difusión del conocimiento pedagógico y de metodologías didácticas que favorezca la expansión de prácticas de educativas efectivas.

Ikastorratza, e-Revista de Didáctica, es una revista bilingüe, abierta a propuestas de autores y autoras que deseen publicar trabajos inéditos tanto en euskara como en castellano.

IKASTORRATZA. Didaktikarako e-aldizkaria

IKASTORRATZA. e-journal on Didactics

IKASTORRATZA. e-Revista de Didáctica

ISSN: 1988-5911 (Online) Journal homepage: <http://www.ehu.es/ikastorratza/>

Hizkuntzen Trataera Bateraturantz jotzeko osagaiak: irakasleen usteak

Izar Azkue-Urkidi¹ & Ibon Manterola² 

¹Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU)

i.azkueurkidi@irakasle.eus

²Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU)

ibon.manterola@ehu.es

To cite this article:

Azkue-Urkidi, I. & Manterola, I. (2026). Hizkuntzen Trataera Bateraturantz jotzeko osagaiak: irakasleen usteak. *IKASTORRATZA. e-Revista de Didáctica*, 36, 95-115. DOI: 10.37261/36_alea/4

To link to this article:

https://doi.org/10.37261/36_alea/4

Published online: 25 March 2026

Hizkuntzen Trataera Bateraturantz jotzeko osagaiak: irakasleen usteak

¹Izar Azkue-Urkidi eta ²Ibon Manterola

¹Lehen Hezkuntzako irakaslea

i.azkueurkidi@irakasle.eus

²Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU)

ibon.manterola@ehu.eus

Laburpena

Artikulu honek Hizkuntzen Trataera Bateraturantz (HTB hemendik aurrera) jotzeko orduan lagungarria izan daitezkeen elementuak identifikatzea eta deskribatzea du helburu, beti ere ikastetxe batean egindako ikerketa bat oinarri hartuta. Ikerketan zehar atal ezberdinetan jarri da fokua, hala nola, ikastetxean indarrean dagoen Hizkuntza Proiektua, HTBrantz jotzeko prozesua lantzeko espazioak eta denborak, HTBren eta eleaniztasunaren inguruko prestakuntza, estrategiak eta baliabide didaktikoak. Ikus daitekeenez hizkuntza-proiektua HTBra jotzeko euskarri modura ikusten da, irakasleek uste dute formakuntza ezinbestekoa dela HTBrantz aurrerapausoak emateko denbora eta espazio egokiekin batera. Parte-hartzaileek HTBrantz jotzeko hainbat osagai, hobekuntza eta aurrerapauso ere adierazi dituzte. Gainera, ikastetxearen proiektzio positiboarekin lotzen dute HTBrantz jotzea, berau abiapuntu oso interesgarri izanez ametsak errealitate bihurtzeko bidean.

Hitz gakoak: Hizkuntzen Trataera Bateratua, irakasleen usteak, hezkuntza eleaniztuna, Ikastetxeko Hizkuntza Proiektua.

Towards an Integrated Treatment of Languages: Teachers' Beliefs

Abstract

The aim of this article is to identify and describe elements that may support the implementation of the Integrated Language Treatment (ILT from now on), based on a study conducted in a school setting. The research focused on several key areas, including the school's current Language Project, the spaces and time allocated for developing the ILT process, training related to ILT and multilingualism, as well as didactic strategies and resources. The findings suggest that the Language Project is perceived as a foundational support for ILT implementation. Teachers consider training essential for making progress toward ILT, alongside appropriate time and space. Participants also highlighted various components, improvements, and advancements related to ILT. Furthermore, they associate ILT implementation with the school's positive projection, viewing it as a promising starting point for turning a dream into reality.

Key words: Integrated Treatment of Languages, teachers' beliefs, multilingual education, Schools' Language Project.

1. Sarrera

Euskal hiztun-komunitateak euskarazko irakaskuntza martxan jartzea erdietsi izan duenean, beti izan du helburutzat ikasleen gaitasun eleaniztuna garatzea. Bestela esanda, euskarazko irakaskuntzaren helburua ez da izan ikasleak euskara hiztun elebakarrak izatea; aitzitik, azken ia bost hamarkadetan Euskal Herrian baldintza sozio-politiko oso ezberdinen menpean garatu ahal izan diren euskal eskola sistemei begiratzen badiegu, argi ikusiko dugu helburua izan dela ikasleek euskaraz gain, gizarteko hizkuntza hegemonikoak (gaztelania edota frantsesa) eta atzerriko hizkuntzak (ingelesa edota frantsesa/gaztelania) ikastea. Halaber, ikasleen etxeko bestelako hizkuntzen garapena ere sustatu du euskarazko eskolak. Are gehiago, nabarmendu beharra dago ikasle gehienak ez direla izan etxetik euskaldunak, baizik eta bigarren hizkuntza (edo hirugarrena eta abar) modura ikasi dutela euskara, hau da, murgilketa bidez. Ondorioz, murgilketa bidezko irakaskuntza eta euskal eskolaren izaera eleaniztuna elkarri estu-estu lotuta garatu izan dira azken hamarkadetan (Idiazabal, 2011).

Ikasleen gaitasun eleaniztunaren helburua lortzeko planteamendu didaktikoei begiratzen badiegu, eta Euskal Autonomia Erkideagoren (EAE) kasura mugatuta, curriculumak hizkuntzen ikaskuntza integratuan eta hizkuntzen eta jakintzen ikaskuntza integratuan kokatzen du marko pedagogikoa. Honela dio curriculum dekretuko 6. artikulua (“Oinarrizko Hezkuntzaren printzipio pedagogikoak”), 9. puntuan (Eusko Jaurlaritz, 2023: 7):

Hizkuntza, informaziorako eta ezagutzaren eraikuntzarako atea izanik, ikasteko prozesuaren erdigunean dago. Hizkuntzen ikaskuntzari konpetentzia-ikuspegi globalizatu batetik heltzen zaio, arreta hizkuntzen ikaskuntza integratuan eta hizkuntzen eta jakintzen ikaskuntza integratuan jartzen duten ikuspegi metodologikoen bidez.

Euskal Herriko hezkuntza eleaniztunaren, hizkuntzen didaktikaren eta irakasleen prestakuntzaren ikerketa ibilbideetan, curriculumak aipatzen duen hizkuntzen ikaskuntza integratua garatzeko ikuspegi metodologikoei askotariko izenak jarri izan zaizkie. Ruiz, Apraiz eta Pérezek (2011) eta Apraiz, Ruiz eta Pérezek (2012) “trataera integratua” erabiltzen dute; aurretik, Arano, Berazadi eta Idiazabalek (1996) hizkuntzen irakaskuntza koordinatua / integratua izendatu zuten, eta azkenik, HTB ere erabili izan da (adibidez,

Aldekoa, 2020; Etxarte, 2007; Ibarluzea, 2024; Manterola et al., 2023). Bestalde, atzerriko tradizio akademikoetatik gurera ekarri dira hizkuntzen trataera integratutik oso gertu dauden bestelako hurbilketak, adibidez, *translanguaging* pedagogia (Cenoz eta Gorter, 2021), literatura anglofonoak munduan zehar asko hedatu duena, baita tradizio frankofonoan ibilbide luzea daukan *didactique intégrée des langues* ere (Candelier et al., 2012).

Hizkuntzen arteko zein hizkuntzen eta arloen arteko ikaskuntza integratua garatzeak askotariko auziak biltzen ditu, tartean, irakasleen prestakuntzarena. Azken hamarkadan zehar ugaritu egin dira hizkuntzen ikaskuntza integratua bideratzeko proposamen metodologikoen aurrean irakasleen prestakuntza ikertu duten lanak. Gehienbat irakaslegaien zein irakasleen usteak eta jarrerak ikertu dira, zer iritzi edo jokabide daukaten eleaniztasunaz zein ikasleen eleaniztasuna garatzeko askotariko proposamen metodologikoez (adibidez, Arocena et al., 2015; Bier eta Lasagabaster 2022; Diaz de Gereñu, 2024). Beste lan batzuek, berriz, hizpide izan dituzte HTBri edo Hizkuntzen Trataera integratuari lotuta irakasleek dituzten irudikapenak eta prestakuntza-erronkak (adibidez, Boillos et al., 2022; Ibarluzea et al., 2021).

Hain zuzen ere, gure artikulua¹ testuinguru horretan kokatu dugu. Lan honen helburua da ikastetxe batean HTBrantz jotzeko orduan lagungarri izan daitezkeen osagaiak identifikatzea, horretarako Gipuzkoan kokatuta dagoen ikastetxe bateko Lehen Hezkuntzako irakasleekin egindako eztabaida-talde eta elkarrizketa indibidualak aztertuta. Artikulu hau Azkue-Urkidik (2022) egindako ikerketa kualitatibo batean oinarritzen da. Azkue-Urkidiren lanean HTBren inguruan ikastetxean zeuden askotariko auziak identifikatu nahi izan ziren, horretarako galdetegi kuantitatibo-kualitatibo bat, eztabaida-talde bat eta hainbat elkarrizketa indibidual erabilita. Gure artikulua honetan, Azkue-Urkidik egindako lanean sakondu nahi genuke, galdetegiko galdera kualitatiboetan, eztabaida-taldeetan eta elkarrizketa indibidualetan oinarrituz.

Sarrera honen ondorengo lehen bi atalak elementu teorikoei dagozkie: bigarren atalean, HTB izango dugu hizpide, hezkuntza eleaniztunerako aterabide interesgarri modura;

¹Lan hau egin ahal izateko, Ibon Manterolak UPV/EHUko ELEBILAB ikertaldeak Eusko Jaurlaritzatik finantzaturako IT1627-22 proiektuaren laguntza izan du. Halaber, bi egileok eskerrak eman nahi dizkiogu Imanol Azkueri, lanaren idazketan zehar emandako laguntzagatik.

hirugarren atalak, berriz, Ikastetxeko Hizkuntza Proiektuaren (IHP hemendik aurrera) gaineko azalpen laburra biltzen du; laugarren atalean, ikerketaren alderdi metodologikoak xehatzen dira; azkenik, bosgarren eta seigarren ataletan, hurrenez hurren, emaitzak aurkezten dira eta lanaren azken ondorioak azaltzen dira.

2. Hizkuntzen Trataera Bateratua

HTBren aldarrikapen nagusia da hainbat mailatan hizkuntzen irakaskuntza ikuspegi koordinatuan eta koherentean egitea (Aldekoa, 2020): irakaskuntzarako programazio mailan, jardueren diseinuan, gelako elkarrekintzen kudeaketan, ebaluazio-irizpideetan eta hizkuntzak irakasterakoan erabili beharreko terminologian. Ikastetxe batean zenbat eta gehiago sakondu HTBn, orduan eta gehiago urrunduko da irakasle taldea hizkuntza bakoitza modu bakartuan eta isolatuan irakastetik.

Illo horretatik, HTB alternatiba interesgarria izan daiteke hezkuntza eleaniztunaren ikuspegi elebarkarra deitzen den horren aurrean bestelako bide batzuk lantzeko. Hezkuntza eleaniztunaren ikuspegi elebarkarrean hizkuntza bat baino gehiago dakizkien hiztunaren irudikapen elebarkarra egiten da; hau da, pentsatzen da hiztun eleaniztuna hainbat hiztun elebarkarren batuketa edo pilaketa hutsa dela. Uste da ikasleek hizkuntza bat modu “isolatuan” bereganatzen dutela; alegia, dakizkiten beste hizkuntzekin inolako loturarik egin gabe eta beste hizkuntzetan ikasitako trebetasunak baliatu gabe (Cenoz eta Gorter, 2014). Horrez gain, hezkuntza eleaniztuna ikuspegi elebarkarrean oinarritzen denean, eskolan hizkuntzen irakaskuntza modu isolatuan programatzen eta eramaten da gelara; alegia, hizkuntza bakoitzaren programazioa, jarduerak sortzeko irizpideak, gelan jarduerak kudeatzeko estrategiak edota ikasleen ebaluazioa bera ere ikastetxean irakasten diren beste hizkuntzetan nola egiten den kontuan hartu gabe egiten da. Oro har, hezkuntza eleaniztuna ikuspegi elebarkarrean oinarritzen denean, ez da aintzat hartzen ikasleak loturak egiten dituela dakizkien edo ikasten ari den hizkuntzen artean, eta ez da lotura horien potentzialitate didaktikoa baliatzen, ez curriculum-mailan, ezta irakasleek gelarako prestatutako jardueretan ere.

Hain zuzen ere, HTBn justu kontrako norabidea hobesten da eta ahalik eta gehien sustatzen da hizkuntza ezberdinetako irakasleek elkarrekin pentsatzea eta diseinatzea ikastetxeko-mailako curriculumak, programazioak eta jarduerak, baita ebaluazio

irizpideak eta gelako jardunbideak ere. Eskolan hizkuntza bat lantzerakoan beste hizkuntzetan ikasleek dagoeneko lortutako trebetasunak aktibatzea eta baliatzea bultzatzen da HTBn. Cumminsek (1981; 2017) garatutako Interdependentzia Linguistikoaren Hipotesiak (ingelesez Interdependence Hypothesis) oinarri psikolinguistiko eta soziolinguistiko sendoa ematen dio HTBri. Aipatutako hipotesiaren arabera, X hizkuntzan landutako trebetasunak Y hizkuntzara transferitu ahal izango ditu ikasleak, baldin eta X hizkuntzako lanketa eraginkorra izan bada, eta baldin eta ikasleak nahikoa motibazio badu Y hizkuntza ikasteko.

Irakasle talde batek HTBrantz jotzea erabakitzeak ez du esan nahi hizkuntza denentzat helburu berberak jartzea, ez ikasleek lortu beharreko gaitasun edota erabilera mailetan, ezta ikasleek hizkuntzekiko garatu beharreko atxikimendu-motetan ere. Kontrara, hizkuntza bakoitzean gizarte beharrian jakin batzuei aurre egiteko adinako gaitasunak lortzea izango da helburua (Idiazabal eta Larringan, 2004), betiere, noski, curriculumak markatutako bidean. Hizkuntzekiko jarrera, atxikimendu eta motibazioei dagokienez ere, HTBk ez dauka zertan hizkuntza guztiekiko jarrera, atxikimendu eta motibazio mota berberak sustatu ikasleen artean. Euskal hezkuntza-sistemaren testuinguruan, hizkuntza-aniztasunarekiko jarrera positiboak garatzea lehentasunezko helburua da, aniztasun horren erdigunean hizkuntza gutxituen, eta zehazki, euskararen iraunkortasunari dagozkion balio positiboak jarrita (Idiazabal et al., 2015).

Ibarluzea eta bestek (2021) agerian jartzen dituzte HTBrantz jotzeak irakasleen artean azalera ditzakeen hainbat prestakuntza-auzi. Lehen Hezkuntzako 36 eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 26 irakaslek hartu zuten parte ikerketan ikastetxean HTB martxan jartzeak dakartzan aukera, mehatxu, indargune eta ahulguneak (AMIA) identifikatuz. AMIAk azaleratutako emaitzen arabera, irakasle parte-hartzaileek uste dute prestakuntza falta nabarmena dela HTBrantz jotzeko orduan, eta zehazki, hizkuntzen didaktikaren esparruan. Ezintasun hori are nabarmenagoa ikusten dute “hizkuntzetakoak” ez diren ikasgaietako irakasleek. HTBrantz jo duten ikastetxeen erreferentziak edo ereduak ere prozesuari ekiteko ziurtasunik ez izatea eragiten du. Halaber, ikastetxearen antolaketari dagokionez, prestakuntza eta koordinaziorako denboren eta espazioen antolaketa nola egin ikasi beharra aipatzen dute ikerketan parte hartutako irakasleek. Prestakuntza-auzi horiez gain, parte-hartzaileek uste dute ikastetxean HTB abiatzeak berrikuntzen zale direnen eta ez direnen arteko gatazkak sor ditzakeela, baita lan-estilo kolektiboagoak (edo

kontrara, indibidualagoak) dituzten irakasleen artean ere. Ibarluzeak eta bestek (2021) azaleratzen duten beste auzi bat hizkuntzak irakasteko metodologiaren da. Diotenez, eta batez ere ingelesaren kasuan, irakaskuntza-metodologiak ezberdinak dira eta hori ahultasun modura ikusten dute HTB martxan jartzeko. Gure ustez, Ibarluzearen eta besteren (2021) lana kontuan izanda, pentsa daiteke hamarkada bat lehenago Apraiz eta bestek (2012) eta Ruizek (2008) HTBrantz jotzeko proposatutako oinarriek irakasleen prestakuntzarako auzi izaten jarraitzen dutela. Auzi batzuk lotuago daude zuzen-zuzenean ikastetxearen antolaketari eragiten dieten alderdiekin (adibidez, denboren eta espazioen kudeaketa; irakasleen lanpostuen egonkortasuna); beste batzuk, berriz, hizkuntzen alderdi didaktikoekin. Baliabide didaktikoei lotutako alderdiak ere kontuan hartu behar dira ikastetxe batean HTB martxan jartzeko problematikaren barruan. Ortega eta Anakabek (2015) egindako irakasle-prestakuntza eta -ikerketaren lanean ikusten den moduan, ezinbestekoa da irakasle talde batek Hizkuntzen (eta arloen) Tratatua Bateria baten pausoak emateko testuliburu, ikasmaterial eta, oro har, baliabide didaktikoak sortzeko, egokitzeko eta erabiltzeko irizpide bateratuak garatzea.

Ikastetxe batean HTB garatzeko bidean, beste funtsezko alderdi bat irakasle-taldeak eleaniztasunaren inguruan dauzkan jarrerak eta irudikapenak dira. Besteak beste, garrantzitsua da irakasle taldeak partekatutako irudikapen eta helburuak izatea hizkuntzei dagokienez. Adibidez, Ibarluzea eta besteren (2021) lanean irakasleen arteko ikuspegi kontrajarriak azaleratzen dira, ikastetxe jakin batean euskara lehentasunezko hizkuntza izatearen inguruan. Horri dagokionez, bat gatz Diaz de Gereñurekin (2024): gaur egun euskal ikastetxeetako erronka nagusietako bat da irakasleek eleaniztasunaz eta hezkuntza eleaniztunaz dauzkaten jarrerak eta irudikapenak partekatzea, eta hortik abiatuta, ikastetxeetan zoru komun bat eraikitzea. Horri lotuta, azkenaldian Hego Euskal Herrian egin diren hainbat ikerketak erakutsi du irakaslegaiaren zein lanean ari diren irakasleen artean nagusi direla eleaniztasunarekiko irudikapen positiboak (Arocena et al., 2015; Bier eta Lasagabaster 2022), eta horrez gain, uste partekatua dela euskal hezkuntza eleaniztunak ikasleek euskararen gaitasuna eta erabilera indartu behar dituela (Gartziarena eta Villabona, 2022).

Ikastetxean ikasleen eleaniztasuna lantzeko bideei dagokienez, interesgarria da Arocena eta besteren (2015) ikerketaren ekarpena. Lan horretan Euskal Herriko 10 ikastetxetako Lehen Hezkuntzako irakasleen usteak aztertu ziren. Ikerketak erakusten du irakasleen

artean indar handia daukala irakaskuntza elebakarraren ikuspegiak: ikasgelan ikasleei hizkuntzak txandakatzen uzteari kaltegarri deritzote eta uste dute ikasgaiako hizkuntza bakarrik erabilera behar dela. Baina era berean ikertzaileek diote euren ikerketako parte-hartzaile batzuek hizkuntzak modu koordinatuan irakastearen aldeko jarrera adierazten dutela. Gartziarena eta besteren (2023) lanean ere Lehen Hezkuntzako irakasleek hartu zuten parte, zehazki, online galdetegi baten bidez (418 irakasle), eta 4 eztabaida-talderen bidez (20 irakasle). Ikerketa honek erakusten du ikasgelan hizkuntzak irakasterakoan hizkuntza bat baino gehiago txandakatzearen aurrean irakasleen lehen erreakzioa ez dela oso aldekoa, hizkuntza-alternantziaren gelako kudeaketak berariazko prestakuntza eskatzen duela iritzita. Hala ere, irakasleak ados daude halako alternantziari alde positiboak ikusterakoan, baldin eta euskararen ikaskuntzaren onerako bada.

3. Ikastetxeko Hizkuntza Proiektua HTB bideratzeko tresna modura

IHP Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako ikastetxe guztiek sortu eta garatu behar duten erakunde mailako proiektu bat da². IHPn honako hauek jasotzen dira: ikastetxeak hizkuntzekin landu eta lortu nahi dituen helburuak, konpetentziak eta horiek lortzeko erabiliko diren metodologiak (Perez eta Garro, 2018). Oro har, ikastetxean hizkuntzei ematen zaien trataerari koherentzia ematea da IHPren helburua (Eusko Jaurlaritza, 2014).

IHPren bidez ikastetxe mailako erabaki kontzienteak eta ausartak sustatu behar dira, bertatik eratorriko diren hizkuntza-politikak eta hizkuntzen irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak berritzaileak izan daitezen eta ikastetxearen proiektua ordenatzen, indartzen, hobetzen edota eraldatzen lagundu dezaten (Perez eta Garro, 2018). Ikastetxe bakoitzeko errealitate soziolinguistikoa bakarra den neurrian, IHPk ikastetxe jakin bateko hizkuntzen trataeraren identitate-ezaugarriak jaso behar ditu (Arenas eta Areny, 1997).

IHPk hezkuntza formala zein ez-formalaren esparruak biltzen ditu barnean. Horren ildotik, ikasleen komunikazio-gaitasunaren garapenak erantzun sistemikoa behar du, hau da, ikastetxe barruari eta inguruneari begiratu behar zaio, hizkuntza-komunikazioaren

²Ipar Euskal Herrian, Seaskako ikastolek ere badute IHP.

dimentsio guztiak hobetzeko bidea planifikatuta (Elorza Alday eta Muñoa Barredo, 2010). IHP sortzeko eta garatzeko prozesuan oso garrantzitsua da ikastetxeko zuzendaritzak lidergoa izatea, talde eragile indartsua eratzea eta irakasleen klaustroa IHPrekiko inplikatzeari.

Perezek eta Garrok (2018) azaltzen duten moduan, IHP diseinatzeko prozesuan ikastetxearen diagnostiko ahalik eta zehatzena egitea komeni da, bai eremu pedagogikoan, bai instituzionalean, baita sozialean ere. Lehena dela-eta, aztertu behar da, besteak beste, gela barruan hizkuntzen irakaskuntzarako zer metodologia erabiltzen diren eta zenbateraino diren metodologia horiek bateratuak. Bestalde, “hizkuntzakoak ez diren” arloetan hizkuntzarekin lanketarik egiten den eta nolako material didaktikoak erabiltzen diren ere aztergai da. Eremu instituzionalean, berriz, IHPri dagokio aztertea eta proposatzea ea ikastetxeko askotariko guneetan zein den hizkuntzen erabilera, eta ea ikastetxearen askotariko harremanetan hizkuntzak nola erabiltzen diren. Azkenik, eremu sozialari dagokionez, diagnostikoa egin behar da ea zer-nolako den familien inplikazioa eta kudeaketa hizkuntzen ikaskuntza eta erabileraren inguruan, ea ikastetxeak zenbateraino eta nola sustatzen duen inplikazio hori, edota ea ikastetxeak euskara sustatzeko ekimenetan parte hartzen duen.

4. Ikerketaren alderdi metodologikoak

Ikerketa honen helburua da ikastetxe batean HTBrantz jotzeko orduan lagungarri izan daitezkeen elementu batzuk identifikatzea eta deskribatzea; horretarako, Gipuzkoako ikastetxe batean egindako ikerketa enpirikoa izan da abiapuntua (Azkue-Urkidi, 2022). Ikerketa enpiriko hori irakasleekin egindako eztabaida-talde eta elkarriketa indibidualetan oinarritzen da. Jarraian, ikerketaren alderdi metodologikoak aurkeztuko ditugu.

4.1 Ikastetxearen testuinguru soziolinguistikoa eta ezaugarriak

Ikastetxea 10.000 biztanle inguruko herri batean dago. Herritarren gehiengoak euskaraz daki eta kalean eguneroko bizitzan euskaraz asko egiten da. 1996. urtean sortu zen ikastetxea, eskola publikoak eta Ikastolak bat eginda, eta hauek dira bere hezkuntza-eskaintzaren printzipio nagusiak: ikasle guztiei irekia dago, euskalduna da, aniztasunean eta ideia zein pertsona guztien arteko errespetuan oinarritutako bizikidetzaren sustatzen du,

akonfesionala da; halaber, ikastetxe-komunitateko kide guztiak partaide aktiboak izatea lortu nahi da, lanaren hausnarketa, formazioa eta etengabeko hobekuntza du oinarri eta heziketa jasangarria bultzatzen du.

700 ikasle inguru daude Haur Hezkuntza (hemendik aurrera HH) eta Lehen Hezkuntza (hemendik aurrera LH) artean: 200 ikasle inguru HHn, 11 ikasgelatan banatuta; eta 500 ikasle inguru LHn, 23 ikasgelatan. Irakasle eta espezialistak, berriz, 70 inguru dira: HHn 20 inguru, LHn 30 inguru eta espezialistak 20 inguru.

Ikastetxeak hainbat proiektu eta plan jarri ditu martxan: Hizkuntza Normalkuntza Plana, Irakurketa-Idazketa Proiektua, Hezkidetza Proiektua, Irratia, Haur Hezkuntzan Mugimendu Autonomia, Bizikidetza eta Bizikasi, Bidelaguna, STEAM...

4.2 Ikerketako parte-hartzaileak

20 izan da ikerketan parte hartu dutenen kopurua: Zuzendaritzako eta Lehen Hezkuntzako lantaldeko kideak, LH3-5. mailetako tutoreak, Ingeleseko irakasleak, Hizkuntza Indartzeko Proiektuko Irakaslea (HIPIa), laguntza taldekoa, hezitzailea eta logopeda. Gehiengoak 45-55 urte ditu, % 35 (7 lagun) izanik. % 30ek 36-45 urte artean (6 lagun), % 25ek (5 lagun) 56-65 urte artean eta % 10ek (2 lagun), berriz, 25-35 urte artean.

Lan-esperientziarekin jarraituz, parte-hartzaileen erdiak, hots, % 50ek (10 lagunek) 20 urte baino gehiago daramatza lanean, % 25ek (5 lagunek) 16-20 urte artean, % 15ek (3 lagunek) 11-15 urte artean eta % 10ek (2 lagunek) 0-5 urte artean. Beraz, esan daiteke gehiengoak irakaskuntzan esperientzia oparoa daukala.

Euskararen, gaztelaniaren eta ingelesaren hizkuntza-maila galdetuta (“Ez dakit”-etik “Bikain”-era) honako hauek izan dira emaitzak:

- Euskara: % 70 (14 lagun) bikain moldatzen da, % 30 (6 lagun) ongi moldatzen da.
- Gaztelania: % 50 (10 lagun) bikain moldatzen da, % 40 (8 lagun) ongi moldatzen da eta % 10 (2 lagun) erdizka moldatzen da.
- Ingelesa: % 10 (2 pertsona) bikain moldatzen da, % 30 (6 lagun) erdizka moldatzen da, % 35ek (7 lagunek) apenas daki, eta % 5ek (lagun 1) ez daki.

Hona hemen azken datu pertsonalak: % 70ek (14 lagunek) adierazi du eleaniztuntzat duela bere burua, eta % 30ek (6 lagunek), berriz, ezetz. Baiezkoa adierazi dutenek hainbat arrazoi aipatu dituzte eleaniztun izateko: ezagutzen eta praktikan egunerokoan hizkuntza ezberdinetan moldatzen direlako eta gai direlako hizkuntza batean zein bestean zuzentasunez aritzeko, besteak beste; beraien burua eleaniztuntzat jo ez dutenek, aldiz, aipatu dute ingelesa ez dakitelako edota ama-hizkuntza euskara dutelako eta inguru oso euskaldunean bizitzen saiatu direlako ez direla eleaniztun sentitzen.

4.3 Ikerketarako tresnak

Ikerketak izaera kualitatiboa du, eta 2 bloke eta 3 etapa ezberdinetan banatu da. Lehenik eta behin, galdetegi bat sortu zen, 4.2. atalaren hasieran zerrendatutako kideei zuzendua. Jarraian, galdetegia aztertu eta sakontzea merezi zuten auziak identifikatu ziren. Sakontze lan hori eztabaida-talde baten eta hainbat elkarrizketa indibidualen bidez egin zen. Galdetegiari dagokionez, 2022ko urtarrilean jaso ziren eta 9 ataletan banatuta zegoen: ikerketaren aurkezpena, erantzunak erabiltzeko baimen-orria, datu pertsonalak, ikastetxean indarrean dagoen Hizkuntza Proiektua, HTBrantz jotzeko prozesua lantzeko espazioak eta denborak, HTBren eta eleaniztasunaren inguruko prestakuntza, HTB gauzatzeko estrategiak eta baliabide didaktikoak eta amaierako atala. Galdetegiak galdera kuantitatiboak eta kualitatiboak biltzen baditu ere, artikulua honetan informazio kualitatibora mugatuko gara, artikulua Sarreran aurreratu dugun moduan.

Eztabaida-taldeari dagokionez, berriz, 2022ko martxoan egin zen eta 3 irakaslek hartu zuten parte. Hiruren kasuan, irakaskuntzan esperientzia oparoa duten eta ikastetxe-kopuru ezberdinetan aritu ziren irakasleak. Aipatu bezala, eztabaida-taldeko gidoia egiteko orduan galdetegian ateratako emaitzak izan ziren oinarri nagusi: ikastetxean indarrean dagoen Hizkuntza Proiektua, HTBrantz jotzeko prozesua lantzeko espazioak eta denborak, HTBren eta eleaniztasunaren inguruko usteak, HTBren eta eleaniztasunaren inguruko jarrerak, prestakuntza, estrategiak eta baliabide didaktikoak eta amaiera.

Azkenik, 3 elkarrizketa indibidual egin ziren, 2022ko martxoan eta apirilean zehar. Profil ezberdinetako 3 pertsonari egin zitzaion: zuzendaria, tutore bat eta ingeleseko irakaslea. Elkarrizketarako gidoia eztabaida-taldearen antzekoa zen, baina bakoitzaren errealitatera

egokituta: zuzendariarekin Zuzendaritzako kide moduan jasotzen zuten laguntza eta informazioaren inguruan hitz egin zen, ea zein zen errealitatea eta ea ezagutzen zituen beste ikastetxeetako egoerak. Tutorearekin ikastetxeko komunikazioaren inguruan ere hitz egin zen, eta azkenik ingeleseko irakaslearekin hauek ere hitz egin ziren, besteak beste: beraien egunerokotasuneko jardunean ea kontuan hartzen duten Hizkuntza Proiektuan aipatzen ziren kontuak edo libretik doazen, ea adosten zuten tutoreekin zer landu edo modu paraleloan zihoazen, eta ea nola bizi zuten ingeleseko irakasle bezala hizkuntzen txandakatzea eta kudeaketa. Eztabaida-taldea eta banakako elkarrizketak transkribatu egin ziren. Aipatu nahi dugu parte-hartzaileen lekukotzak euskara batuan eman ditugula artikuluan, nahiz eta, kasu batzuetan, parte-hartzaileek tokian tokiko euskararen aldaerak erabili zituzten.

Edukien analisisian oinarrituta aztertu da galdetegian eta eztabaida-taldeko eta elkarrizketetako transkribaketan jasotakoa. Bestela esanda, alde batera utzi da aztergai ditugun iritzi, uste eta jarrerak adierazteko moduen analisia. Jarraian, emaitzen atalean, parte-hartzaileengandik jasotako testigantzak bildu dira.

5. Emaitzak

Ondoren erakutsiko dugun moduan, 5 dira irakasleen lekukotzetatik aterata identifikatu ditugun elementu nagusiak: Hizkuntza Proiektua eta HTBren arteko loturak; irakasleen jarrerak eta irudikapenak eleaniztasunaren inguruan; irakasleen prestakuntzaren auzi batzuk HTBri lotuta; ikastetxeko espazio eta denboren kudeaketa HTBri dagokionez; eta azkenik, HTB eta ikastetxearen proiektzio positiboa.

5.1 Hizkuntza-proiektua HTBra jotzeko euskarri modura

Gure ikerketan parte hartu duten irakasleek argi diote hizkuntza-proiektuan HTBrantz jotzeko oinarri eta urratsak jasotzea oso lagungarria izan daitekeela. Irakasleen arabera, oinarri eta urrats horiek landu ahal izateko, lagungarri izan daitezke honako ideia hauek: prozesuaren koordinazioa lideratuko duen irakasle-taldea eratzea, irakasle-taldearen partaidetza sustatzea, behar besteko denbora ematea HTBren gaineko irakasleen prestakuntzari eta hizkuntza bakoitzarentzat zehaztutako helburuen mapa osatu bat egitea. Irakasleek eztabaida-taldean adierazi zuten lagungarria izan daitekeela txantilo moduko

dokumentu bat sortzea, hizkuntza bakoitzerako ezarritako lehentasunak eta hizkuntza bakoitzeko irakaskuntza-metodologiak jasoko lituzkeena. Irakasleen ustez, hori lagungarria litzateke, irakaskuntzarako oinarri partekatua eta sistematizazio-irizpideak eraikitzeke.

52 Euskara barnean hartzen duen eleaniztasunaren aldeko jarrerak. HTBrantz jotzeko oinarrietako bat

Ikerketan parte hartutako irakasleek euskararen ikaskuntza eta erabilera barruan hartzen duen eleaniztasunaren aldeko uste eta jarrerak adierazi zituzten eztabaida-taldean eta banakako elkarrizketetan, Diaz de Gereñuk (2024) edota Gartziarena eta bestek (2023) erakutsitako emaitzen ildoan. Uste eta jarrera positibo horiek interesgarriak izan daitezke HTBrantz jo nahi duen irakasle-talde batentzat: irakasleek argi daukate ikasleengan eleaniztasuna sustatzeak ez duela ikasleen eskola porrota indartzen eta ikastetxean hizkuntza bat baino gehiago erabili eta lantzeaz jarrera positiboak dauzkate.

Zehazki euskarari dagokionez, prestigiozko eta garrantzi handiko hizkuntzatzat daukate ikerketan parte hartutako irakasleek. Are gehiago, eztabaida-taldean jasotako hurrengo lekukotzak (1) erakusten duen bezala, euskararen irakaskuntza ziurtatzea ikastetxearen ardura ere badela uste dute. Gure ustez, garrantzitsua da ikuspegi hori, kontuan hartuta, euskararen ezagutza oso altua eta kaleko erabilera gaztelaniaren parekoa den herri batean dagoela ikastetxea. Halaber, irakasleek uste dute mundu-mailan hegemonikoak diren hizkuntzen ondoan ikastetxeak euskara indartu behar duela. Horren haritik, HTBk ez du esan nahi hizkuntzen trataera berbera:

(1)

- Nik uste dut euskarari gehiago ematen diogula (ET1).
- Eta eman egin behar zaio, noski. Gaztelaniak ere badauka bere indarra (ET3).
- Berezkoa (ET1).
- Hori da, berezko indarra. Eta ingelesak ere badauka, bai, bai, bai (ET3).
- Bai, suposatzen da maila berarekin aterako direla gaztelera eta euskara, maila berarekin, eta ikusita gizartean gaztelarak daukan indarra, nik uste dut momentu honetan bereziki euskara indartu behar dela. Ez dugu ahazten gaztelera, hor dago, oso presente dago, baina... (ET2).

5.3 Irakasleen prestakuntzan lehentasuna eman beharra HTBri

Ikerketako irakasleen ustez, ikastetxean profesional onak daude, hizkuntzaren arloan oso ongi lan egiten dutenak ikasleekin. Hala ere, formakuntza ezinbestekotzat jotzen dute eta formakuntza orokortu eta sistematizatuaren alde daude, HTBrantz joateko aurrerapauso modura. Formakuntzarekiko irudikapen positibo hori ezinbesteko osagaia da HTBrantz jotzeko. Are gehiago, ikerketan jasotako datuek erakusten dute talde-lanean aritzeko ohitura, gogoia eta interesa dutela. Hala ere, irakasle parte-hartzaileen lekukotzak eta esperientziak kontuan hartuta, oso argi geratzen da ezinbestekoa dela prestakuntza beharrei buruzko ikuspegiak lerrokatzea irakasleen eta administrazioaren artean. Adibide modura, eztabaida-taldean irakasleek auzitan jarri zuten administrazioetik digitalizazioa sustatzeko ezarritako prestakuntza-agenda. Irakasleen ustez, digitalizazioa baino garrantzitsuagoa da hizkuntzen kudeaketa eta irakasleen formakuntza, hizkuntza oinarritzko baliabidea delako jakinduria transmititzeko. Finean, (2) zenbakidun lekukotzak erakusten duten moduan, prestakuntzan lehentasuna ematea beharrezkotzat ikusten dute “goitik inposatutako” prestakuntza-gaien aurrean:

(2)

- Baina lehentasunak eman egin behar dira (ET2).
- Lehentasunak markatu behar dira eta momentu honetan lehentasun horiek bale, baina hau baliabide bat da eta nik pertsonalki uste dut hizkuntzarena askoz ere oinarritzkoagoa dela (ET2).
- Askoz ere (ET1).
- Oinarri-oinarritzkoa (ET3).

Ikerketan parte hartutako irakasleek adierazitakoaren arabera, HTB euren irakasle jarduneko hainbat momentutan gauzatzen da, adibidez, gelako esku-hartzeetan eta programatzerakoan. Gelako esku-hartzeei dagokienez, prestakuntzarako auzi bat nabarmendu dute: gelako hizkuntzen kudeaketarena, eta zehazki, hizkuntza-alternantziarena azpimarratu nahi genuke. Eztabaida-taldean eta banakako elkarrizketetan jasotakoaren arabera, hizkuntzetako ikasgaietan gelan hizkuntzak tartekatzea, eta zehazki, irakasleak nahita hizkuntza bat baino gehiago txandakatzea prestakuntza-gai

garrantzitsua izan daiteke. HTBrantz jotzeko orduan, funtsezko osagaia dirudi gelan hizkuntza-alternantzia noiz eta nola egin lantzea irakasleen prestakuntzan.

5.4 HTB gauzatzeko denbora eta espazioak identifikatzen asmatu

Parte-hartzaileen ekarpenetan argi ikus daiteke HTBra jotzeko egitasmo batek denboraren kudeaketa ona eskatzen duela. HTBrantz jotzen lagundu dezaketen hainbat osagai identifikatu zituzten irakasleek, denbora eta espazioen kudeaketari lotuta. Ebaluazio- eta ziklo-bilerez harago, HTBrantz jotzeko prozesua gidatuko lukeen batzorde baten eraketa aipatu zen, denbora eta espazio egokiak izango lituzkeena ikastetxearen eguneroko bizitzan. Jarraian datorren aipuak (3) ongi laburtzen du irakasle parte-hartzaileen arabera batzordearen lanketak nondik jo behar lukeen:

(3) Hausnarketa baten ondoren eskola osoan, goitik behera antolatu maila bakoitzean landu beharreko testu-motak, dena era koherentean, ziurtatuz ibilbide osoan denak behar bezala lantzen direla. Ulermena zein ekoizpenak lantzeko oinarriak, faseak eta estrategiak adostea eta finkatzea. Hiru hizkuntzen eremu komunak hausnartu eta praktikak adostu (G4).

Bestalde, irakasleek adierazi zuten egunerokotasunean ere sor daitezkeela uneak, HTBren gaineko askotariko hausnarketak egin ahal izateko. Adibidez, lekukotza honetan (4) norbere irakasle praktikak besteekin partekatzearen onurak azaltzen ditu irakasle batek:

(4) Norberak bere kodeak zeintzuk dituen konturatuz eta lotsarik gabe lankideekin partekatuz; lankideon artean kode ezberdinak daudela konturatuz, onartuz, horren normaltasunaz konturatuz eta irizpide komunen abantailetan fokalizatuz (...) Gauza horiek, ezin dira egun batetik bestera sortu (G1).

Oro har, irakasleek uste dute eguneroko jardunean posible dela norbere zein besteen praktika onak elkarri azaltzea eta horien gainean hausnartzea, konfiantzak sortzea eta harremanak zaintzea irakasleen artean. Une egokiak dira jarrera irekiak lantzeko irakasle berriekiko, eta ziklo guztien arteko lana koordinatzeko.

5.5 HTBrantz jotzea ikastetxearen proiektzio positiboa irudikatzeko lagungarri

Ikerketan parte hartutako irakasleen arabera, euren ikastetxearen hainbat osagai lagungarriak dira HTBrantz jotzeko: ikastetxea eremu oso euskaldunean egotea, irakasleen esperientzia proiektuak lan egiteko, eta oro har, irakasleen gogoia eta motibazioa. Baina HTBrantz jotzeko prozesuak berak ere ikastetxearen etorkizuneko proiektzioari buruzko irudikapen positiboak sorrarazten ditu, ikerketan ikusi ahal izan dugunez. Hainbat alderdiri lotuta, hobekuntza eta aurrerapausoak aipatu dira: ikastetxearen antolaketan hizkuntzen kudeaketari dagokionez, irakasleen arteko komunikazioa eta lankidetzak, norbere irakasle formakuntza pertsonala eta ikasleen hizkuntza-prozesu eta irteera-profila. Azpimarratu nahi genuke, halaber, irakasleen ustez, HTBrantz jotzeak funtzionamendu kolektibo arrakastatsurako gako batzuk bultzatzen ditzaizkeela, hala nola, elkarri entzutea, ideiak partekatzea eta elkarrekin lan egitea.

6. Ondorioak

Lan honen helburua izan da ikastetxe batean HTBrantz jotzeko orduan baliagarriak izan daitezkeen osagai batzuk identifikatzea; horretarako, Gipuzkoan kokatuta dagoen ikastetxe batean jasotako irakasleen usteak eta bizipenak hartu dira oinarritzat.

IHPk HTBrantz jotzeko orduan izan dezakeen garrantzia dela-eta, ikerketan parte hartutako irakasleen testigantzak bat datoz hizkuntza proiektuaren zereginak eta ezaugarriak azaldu izan dituzten lanekin (adibidez, Perez eta Garro, 2018). Ikastetxe batean hizkuntzak modu isolatuan irakasteari utzi eta tratamendu bateratu edo integratu baterantz jotzeak ikastetxearentzat eta irakasleentzat berritzaileak izan daitezkeen usteak eta jardunbideak garatzea esan nahi du. Hori bat dator hizkuntza-proiektuaren diseinuak eta etengabeko eguneratzeak ikastetxeari ekartzen dion izaera berritzailearekin. Alde horretatik, pentsa liteke hizkuntza-proiektuaren garapena bultzatzea eta babes dezakeen elementuetako bat izan daitekeela HTB, eta alderantziz ere bai, Boillos eta bestek (2022) argudiatu bezala.

Bestalde, gure ikerketako parte-hartzaileek erakutsi bezala, bateragarriak dira eleaniztasunarekiko jarrera positiboak eta euskara bezalako hizkuntza gutxitu baten aldeko jarrera hartze sendoa eta proaktiboa. Are gehiago, ikastetxe batean euskara barnean

hartzen duen eta helburu gisa erdigunean jartzen duen eleaniztasunaren aldeko jarrera partekatuak izatea lorpen handia da. Izan ere, eleaniztasunaren aldeko uste eta jarrerek, mundu-mailan, hizkuntza hegemonikoen eleaniztasuna babestea dakarte, oro har (Diaz de Gereñu, 2024). Ikusi dugunez, gure ikerketako parte-hartzaileek oso bestelako leku batetik egiten dute HTBrantz. Kontuan izanik gure lan honetan ikergai izan den ikastetxea euskara asko egiten den ingurune batean kokatuta dagoela, interesgarria litzateke bestelako testuinguru soziolinguistikoetako ikastetxeak aztertzea, ikusteko ea euskararen aldeko jarrera proaktiboa eta eleaniztasunaren aldekoa nola uztartzen diren ideologikoki.

Ikasgelan hizkuntza bat baino gehiago modu kontrolatuan eta aurrez ezarritako helburu argien arabera txandakatzea HTBrantz jotzeko pauso garrantzitsua da. Baina gure ikerketako parte-hartzaileek argi adierazi bezala, prestakuntza handia eskatzen duen auzia da hori. Aurrez egindako hainbat ikerketak erakutsi dute sekuentzia didaktikoak baliabide interesgarriak izan daitezkeela gelako hizkuntza alternantzia antolatzeke, inplikaturako hizkuntza bakoitzari lotutako helburu didaktikoak eta jarduera zehatzak finkatzea errazten dutelako (Bronckart, 2013; Manterola eta Aldekoa, 2023).

Azkenik, ikerketatik nabarmendu nahi genukeen beste hausnarketa bat da parte-hartzaileek ikastetxearen proiektzio positiboarekin lotzen dutela HTBrantz jotzea. HTBrekiko irudikapen positibo hau Boillos eta besteren (2022) lanean ere ageri da. Hezkuntza eleaniztun arrakastatsua euskal eskola garaikidearen ezinbesteko beste amets bat den neurrian (Idiazabal, 2011), irakasleen aldetik HTB ikastetxearen etorkizun positiboarekin lotzea abiapuntu oso interesgarria izan daiteke amets errealitate bihurtzeko bidean.

Bibliografia

- Aldekoa, A. (2020). *Hizkuntzen irakaskuntza bateraturantz: ahozko azalpenaren didaktika eleaniztuna derrigorrezko bigarren hezkuntzan. Towards an integrated teaching of languages: plurilingual didactics of the oral exposition in secondary education*. Vitoria-Gasteiz. Doktorego tesia. UPV/EHU.
- Apraiz, M. V., Pérez, M. D. M., eta Ruiz, T. (2012). La enseñanza integrada de las lenguas en la escuela plurilingüe. *Revista Iberoamericana de Educación*, 59, 119-137.
- Arano, R.M., Berazadi, E. eta Idiazabal, I. (1996). Planteamiento discursivo e integrador de un proyecto de educación trilingüe. *Diálogos hispánicos*, 18, (Las lenguas en la Europa Comunitaria II. La enseñanza de segundas lenguas y/o de lenguas extranjeras. 65-88.
- Arenas, J. eta Areny, M. (1997). Ikastetxeko hizkuntza proiektua. *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, 24, 29-52.
- Arocena, E., Cenoz, J., eta Gorter, D. (2015). Teachers'beliefs in multilingual education in the Basque Country and in Friesland. *Journal of Immersion and Content-Based Language Education*, 3(2), 169-193.
- Azkue-Urkidi, I. (2022). *Lehen Hezkuntzan Hizkuntzen Trataera Bateraturantz: ikastetxe bateko hainbat gakoren azterketa*. Master Amaierako Lana. UPV/EHU. Argitaratu gabea.
- Bier, A eta Lasagabaster, D. (2022). What has changed over 18 years? Future teachers'language use and attitudes towards multilingualism in the Basque Autonomous Community. *Language and Education*, 36 (1), 1-22.
- Boillos Pereira, M. M., Aranberri Monasterio, N., Zuloaga Roman, E., eta Ibarluzea Santiesteban, M. (2022). ¿Es una buena idea el Tratamiento Integrado de Lenguas? Percepciones del profesorado de Educación Primaria, *Didáctica. Lengua y Literatura*, 34, 161-170.
- Bronckart, J.-P. (2013). Una didáctica de las lenguas para una enseñanza bilingüe. In J. Dolz eta I. Idiazabal (Edk.), *Enseñar (lenguas) en contextos multilingües*. UPV/EHU. 31-50.

- Candelier, M., Camilleri-Grima, A., Castellotti, V., de Pietro, J.-F., Lőrincz, I., Meißner, F.-J., Schröder-Sura, A., Noguerol, A. eta Molinié, Muriel (2012). *Le CARAP - Un Cadre de Référence pour les Approches plurielles des langues et des cultures – Compétences et ressources*. Conseil de l'Europe.
- Cenoz, J. eta Gorter, D. (2014). Focus on multilingualism as an approach in educational contexts. *Heteroglossia as practice and pedagogy*, 239-254.
- Cenoz, J. eta Gorter, D. (2021). *Pedagogical translanguaging*. Cambridge University Press.
- Cummins, J. (1981). The role of primary language development in promoting educational success for language minority students. In: Evaluation, Dissemination and Assessment Center (ed.), *Schooling and Language Minority Students: A Theoretical Framework*. California State University, Los Angeles, p. 3-50.
- Cummins, J. (2017). Teaching for transfer in multilingual school contexts. Bilingual and Multilingual Education. In O. García; A. Lin; S. May, *Encyclopedia of Language and Education*. Springer, 103-115.
- Díaz-de-Gereñu, L. (2024). La gestión lingüística en Educación Infantil: ideologías lingüísticas plurilingües a debate desde el contexto vasco. In N. Rohling (Ed.), *Ideologías lingüísticas e (des)colonialidade da linguagem: diálogos emergentes*. Pontes. 243-276.
- Elorza Alday, I. eta Muñoa Barredo, I. (2010). Euskara sustatzeko eleaniztasuna: ikastolen kasua. *Ikastaria*, 17. 39-66.
- Etxarte, A. (2007). Hizkuntza tratuera bateratua. Hegoalde Ikastola. Iruñea. *Biribilka*, 4. 32-34.
- Eusko Jaurlaritza. (2014). Ikastetxearen hezkuntza proiektua egiteko gida. Eusko Jaurlaritza. (2014). *Ikastetxearen hezkuntza proiektua egiteko gida*. https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/inn_doc_lenguas/eu_def/adjuntos/500012e_Pub_EJ_gida_hizpro_e.pdf
- Eusko Jaurlaritza (2023). 77/2023 DEKRETUA, maiatzaren 30ekoa, Oinarritzko Hezkuntzaren curriculumaz zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa.

https://www.berrigasteiz.com/monografikoak/ec22/etapa_oinarrizkoa/dekretua/20230731_oinarrizkoa_curriculum_dekretua_e_ZUZENDUTA.pdf

- Gartziarena, M., Villabona, N. eta Olave, B. (2023). In-service teachers' multilingual language teaching and learning approaches: insights from the Basque Country. *Language and Education*, 1-15.
- Ibarluzea, M. (2024). Itzulpen-estrategia pedagogikoak euskal irakaskuntzaren ardatzekin bat. *Euskera Ikerketa Aldizkaria*, 69(2), 123–157. <https://doi.org/10.59866/eia.v69i2.285>.
- Ibarluzea, I., Zuloaga, E., Boillos eta M. M., Aranberri, N (2021). La implementación del tratamiento integrado de lenguas: percepciones del profesorado de educación primaria y secundaria. *Tonos digital: Revista de estudios filológicos*, 40, 1-25.
- Idiazabal, I. (2011). Eleaniztasuna hezkuntzaren derrigorrezko beste utopia bat? *Bat. Soziolinguistika aldizkaria*, 81, 89-105.
- Idiazabal, I. eta Larringan, L.M (2004). La competencia discursiva en la didáctica de las lenguas y del plurilingüismo. *BILINGLATAM 2004 First International Symposium about Bilingualism and Bilingual Education in Latin America. Symposium Proceedings*. Buenos Aires: ESSARP, 2004, 143-152.
- Idiazabal, I., Manterola, I. eta Diaz de Gereñu, L. (2015). Objetivos y recursos didácticos para la educación plurilingüe. In Garcia-Azkoaga, I. M., eta Idiazabal, I. (Edk), *Para una ingeniería didáctica de la educación plurilingüe* (39-55). Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitalpen Zerbitzua.
- Manterola, I. eta Aldekoa, A. (2023). Expérimentation d'une séquence didactique trilingue en contexte immersif en basque: des éléments pour un dialogue avec la règle du sept de la sociodidactique des langues. *Calidoscopio*, 21(1), 21–41. <https://doi.org/10.4013/cld.2023.211.02>
- Manterola, I., Rodriguez-Aguirre, A., Sarasua, M. eta Elosegui, R. (2023). Seaskako ikastoletako murgilketa ereduan hizkuntzen trataera bateraturantz. *Lapurdum*, 24, Numéro XXIV. 235-251. DOI: <https://doi.org/10.4000/127u3>

- Perez, K. eta Garro, E. (2018). Ikastetxeko hizkuntza-proiektua, hautuak egiteko eta ikastetxea eraldatzeko aukera. *Jakingarriak*, 77, 56-59.
- Ruiz, T (2008). El tratamiento integrado de lenguas. Construir una programación conjunta. *Textos de Didáctica de la Lengua y la Literatura*, 1-12.
- Ruiz Pérez, T., Apraiz, M. V. eta Pérez Gómez, M. (2011). «El tratamiento integrado de lenguas. Los proyectos de comunicación», en Ruiz Bikandi, U. (coord.), *Lengua castellana y Literatura. Investigación, innovación y buenas prácticas*. Barcelona: Grao, pp. 151-66.